

AZPEITIKO KIROL-KLUBEK 2022-2023. URTEAN AMAITUTAKO KIROL-FORMAZIOA IKASTAROETARAKO DIRU-LAGUNTZAK. (9D-2.A.3/2023KIKL)

Kirola interes publikoko gizarte-jarduera da, pertsonak bete betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizartea ondo izateko lagungarria.

Aginte publikoek, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute. Horretarako, burutuko duten kirol politikak, besteak beste, printzipio hauek izango ditu oinarrian; kirol-elkarteak bideratzea eta sustatzea, bai eta kirol arloko antolakuntza-egitura pribatuak onartzea eta babestea; kirol-teknikarien prestakuntza bideratzea eta bultzatzea Soin Hezkuntzako Euskal Erakundearen eta kirol-federazioen parte-hartzearekin (2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta kirolarena, 2.artikulua-u/p) eta Udalak eskumen propioa du osasun publikoa sustatzea, kudeatzea defendatzea eta babestea, baita kirola eta kirol jarduerak antolatzeke eta sustatzeko ere (Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.19 eta 17.1.20 artikulua).

Azpeitiko Udalak, GAO, 2023-05-08ko deialdiaren baitan argitaratutako dirulaguntzaren xedea da, Azpeitiko kirol-klubek 2022-2023 denboraldian/2023.urtean amaitu dituzten kirol-formazio ikastaroetarako laguntza zuzenak ematea, konkurrentziazko zuzeneko emakida-prozeduraren bidez.

Diru-laguntza modalitate hau arautzen duen oinarrien 7. puntuan eskaerak aurkezteko epea zehazten du. Eskaerak aurkezteko epe-muga 2023ko urriaren 27an amaitu zen, eta dagokigun honetan, epe barruan aurkeztu diren 2 eskaera erabakiko dira.

Diru-laguntza horiek arautzen dituzten oinarri orokorreko 9. puntuan ezartzen denez, eskaerak Udaleko Kirol Saileko teknikariak baloratu ditu. Balorazio-txostena Udalaren Kirol Batzordeari igorri zitzaion 2023ko abenduaren 20an, eta honek bere egin ondoren, dagokion ebazpen proposamen arrazoitua egin dio Alkatetzari, baiezeko kasuetan bakoitzean zenbatekoa zehaztuz.

Kirol Batzorde berriemaileak egindako ebazpen proposamena ikusita, Alkatetza honek prozedura ebatziko du, eta laguntzaren oinarrien 10 artikulua araberak, deialdiaren ebazpena Udalaren Web orrian argitaratuko da diru-laguntza programa atalean. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du. Argitalpen egunaren biharamunetik hasita jakinarazpena egintzat joko da lege ondorio guztietarako. Modu berean, argitaratzen den egunean bertan, Udalak abisu bat bidaliko die erakunde eskatzaile guztiei, posta elektronikoz, ebatzitako laguntzen berri emateko eta Estatuko Diru-laguntzen Datu Basean ere

argitaratuko da.

Oinarri orokorreko 11. puntuak dioenez onartu den laguntza ordainketa aldi bakarrean egingo da zuriketa aurkeztu diren kasuetan. Dagokigun honetan guztiek zuriketa aurkeztu dute Udal teknikariak horien ebaluazioa egin ondoren ontzat eman ditu.

Laguntzaren ordainketak Udalaren 2023ko aurrekontuaren bidez egingo da, honako partidatik: 1.0500.481.341.00.02.2023 "Transf. arruntak, Kirol batzordea.

Eta eskumenari dagokionean Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikuluan dioenaren arabera **ERABAKI DUT:**

Lehena: Kirol-Klubek egin dituzten kirol formazio ikastaroak laguntzeko 2023. ekitaldiko diru-laguntza deialdian aurkeztu diren eskaerak ebaztea, Kirol Batzordeak egindako ebazpen proposamenaren arabera.

Espedientea	2022-2023 denboraldia	Udal dirulaguntza
2023KIKL-12	Loretoki Azpeitiko Gimnastika Kirol kluba	22,50€
2023KIKL-13	Lagun-Onak Futbol taldea	600,00€
	GUZTIRA	622,50€

Bigarrena: kontuan izanik kasu guztietan zuriketak behar bezala eginak daudela, oinarriekin bat ordainketa egingo da.

Hirugarrena: Alkatetzaren erabaki hau Udalaren web orrian argitaratuko da eta baita Estatuko diru-laguntzen datu basean ere. Modu berean, argitaratzen den egunean bertan, Udalak abisu bat bidaliko die erakunde eskatzaile guztiei, posta elektronikoz, ebatzitako laguntzen berri emateko.

Laugarrena: Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, ADMINISTRAZIO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesatuek zuzenean Donostiako administrazioa-
rekiko auzietako epaitegian. Horretarako, BI HILABETEKO epea dute, jakina-
razpena jaso eta biharamunetik hasita. Hala ere, aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko alkate honi HILABETEKO epean.



Nagel